

3.4.1. UDAL-AREAK. HERRITARREN SEGURTASUNA ETA BIZIKI-DETASUNA. EREMU PUBLIKOAREN KUDEAKETA.

JARDUERAK BIDE PUBLIKOAN

Baimendutako jarduerak	2013	2014	2015	2016	2017
Kirol-jarduerak	64	52	61	68	68
Eskeko mahaiak eta mahai informatiboak	51	54	67	59	68
Kultur jarduerak	12	5	15	12	27
Erakusketak eta publizitate-kanpainak	40	33	43	39	47
Informazio- eta publizitate-autobusak	27	48	33	17	11
Merkataritza-jarduerak	20	33	38	31	25
Festa-ekitaldiak	235	274	254	271	201
Desfileak	50	59	90	68	83
Filmaketak	15	17	19	24	24
Auzoetako festak	11	11	12	11	12
Askotariko baimenak	9	54	30	28	53
Terrazak	117	147	174	168	110
Jarduerak sanferminetan	91	44	48	44	89
Guztira	742	831	907	840	818

TERRAZAK ETA ELEMENTUAK BIDE PUBLIKOAN

2017ko amaieran, 665 lizentzia emanda zeuden bide publikoan terrazak jartzeko, eta 86 lizentzia beste era batzuetako okupazioetarako (loreontzi-euskarriak, erakustokiak, etab.).

MANIFESTAZIOAK ETA ELKARRETARATZEAK

Bilera Eskubidea arautzen duen eta apirilaren 21eko 9/1999 Lege Organikoak aldatu zuen uztailaren 15eko 9/1983 Lege Organikoa betez, Herritarren Segurtasuneko eta Elkarbizitzako Alorrak txostena eman du Gobernu Ordezkaritzak Iruñean baimendutako elkarretaratze eta manifestazio guztiei buruz, eta, gero, zirkulazioa kontrolatu du haietan, normaltasunez egin ahal izateko. Guztira, 861 ekitaldi egin ziren; 760 elkarretaratze eta 101 manifestazio.

GANADU-FERIAK

LSanferminetako ganadu-feria tradizionala, uztailaren 7an egiten da, San Fermin egunean, Iruñeko Agustindarren industrialdeko 14.300 m²-ko lursail batean; Espainiako iparraldeko garantzitsuenetako bat da. Zaldi-aziendarena da feria: zaldiak, zaldikumeak, astoak eta mandoak. Autonomia-erkidego desberdinetako abeltzainak, tratulariak eta zaldi-zaleak joan ohi dira. 133 eskorta eta hipodromo bat, abereak erakusteko, jarri ziren, eta 151 abeltzain joan ziren, guztira 487 abelburu eramanda.

LUrteko bigarren ganadu-feria sanmigeletakoa da, irailaren 29an egiten dena, hori ere Agustindarren industrialdean. Orduan, 91 eskorta arrunt, 12 bikoitz eta hipodromo bat, abereak erakusteko, jarri zituen Udalak. 2017an, 225 abelburu erregistratu ziren.

OBJEKTU GALDUAK

Herritarrek horra eramaten dituzten objektu guztiak erregistratu egiten dira datu-base bakar batean. Gehienak, polizia-zerbitzuek, posta-bulegoek, eskualdeko hiri-garraioaren enpresa esleipendunak eta merkataritzaren arloko beste entitateek –hipermerkatuek, kasu– entregatzen dituzte. Objektuak udal-egoitzetan gelditzen dira gordailuan, eta langileak jabeak aurkitzen saiatzen dira. 2017an, guztira, 8.405 objektu erregistratu ziren; 2016an, berriz, 7.714. Jabeek 3.946 itzuli zitzaizkien (3.714, aurreko urtean).

BESTE ZENBAIT JARDUERA

LANDABENGO AZOKA. Guztira 160 salpostu jarri ziren beste horrenbeste titularri esleituta. Haietatik 66 produktu jangarrien eremuan jarri ziren, eta 94k jangarriak ez diren produktuak saltzen dituzte. Ostalaritza-jarduerak ez daude baimenduak. Urteko igande guztietan dago zabalik, uztail eta abuztukoetan izan ezik, 09:00etatik 14:30era.

ERREGEEN DESFILEA. Segurtasun-neurriak hartu ziren desfilearen ibilbidean istripuak eragozteko, Foruen plazatik Gazteluko plazaraino. Adibidez, babes-hesia jarri zen, 1.400 hesi iraulerin guztira, eta orgetan lurrerainoko oihalak jartzea exijitu zen, eta desfileko mutilek alboak zaintzea.